




## GR® 11. 8. ETAPA. IZABA-ZURITZA



Izabatik abiatuko gara, Angel Gale plazatik, ekialderantz. Belengo baseliza ezkerretara uzten duen bidexka batetik joango gara, Belabarsaita haitzaren mazeletan. Pista batera aterako gara, beste pista batetik igotzeko Belabartze sakanaren gainean. Belabartzeko Ateetatik igoko gara, Belabartzeko ur-jauzitik igarotzeko. Bideak gora egiten jarraitzen du, bazkaleku batean atera arte. Ingurune ireki batean, hegoalderantz egingo dugu bira, erreka gurutzatuko dugu eta pinudi batean sartuko gara, bidexkatik jarraitzeko. Bidexka hori pixkana oihanean sartzen joango da, garaiera hartzen joateko. Argibiela muinora edo Nafarren Mendatera iritsiko gara, eta bertan hasten da GR®T 13arekiko lotura. Lehen zatiak, Zuritzako bidegurutzeraino, ibilbidea partekatzen du GR® 11rekin, Aragoiko lurretan.